

MIGUEL LÓPEZ de LEGAZPI y GURRUCHATEGUI

1503-1572

Legazpiren bizitza bera beste bi euskaldunen bizitzen elkargunea da: Elkanorena eta Urdanetarena alegia. Gipuzkoako Zumarragan jaio zen eta txiti-txikitatik itsas-mundura hurbildu zen, aurkitu berri ziren Atlantikoko itsasbideak zeharkatuz. 1545ean Mexikora heldu zen eta Luis Velasco erregeordearekin harreman sakona izan zuen. 1563an Erregeordeak berak Magallaesen eta Elkanoren lana amaitu eta Filipinetako artxipelagoa konkistatzeko antolatutako espedizioaren buru izendatu zuen. Izendapen horretan zerikusi handia izan zuen Ekialde Urruna ondo eta hobeto ezagutzen zuen esperientzia handiko beste itsasgizon batek, Andres Urdanetak, alegia, urte batzuk lehenago apaiz bihurtutakoa. Izan ere Urdanetak berak espedizioan parte hartu behar zuen prelatu gisa beste elizgizon batzuekin. Espainia Berriko Erregeorderritik abiatu ziren 1564ko urriaren 21ean eta Mariana irlak eskuratu zituzten bertatik igarotzean. Filipinetara heldu ziren 1565eko otsailaren 13an Leyte igaro ondoren eta Cebu irlan instalatu ziren, printzipioz baketsu ziruditen hainbat triburekin harremanetan sartuz. Hala ere epe laburrean lehenbiziko gatazkak sortu ziren,

baina Legazpik egoera aurki kontrolatu zuen. San Miguel inguruan gotorleku eta santutegia eraiki zuten. Urte bereko apirilaren 25ean Magallaes hil zuten tribuak menperatu zituzten eta Visaya artxipelagoa konkistatzera abiatu ziren 1565 eta 1569 bitartean. Hasiera batean Bohol eta Panay irlak izan ziren eta gero Mastabe eta Mindoro. Lurralde haiek gehienak tokiko agintariekin sinatutako bake hitzarmenen bidez menperatu zituzten. Horretarako Filipinetako Kapitain Nagusi izendatu zuten. Hala ere, beranduago Luzon irla kontrolatzeko Soliman Rajaren tagalo* mendekoei aurre

egin behar izan zien bortitz. Manila hiria sortu zuen 1571ko maiatzaren 19an. Inguru osoan bakea ezartzeko 300 soldadurekin batera abiatu zen. Manilako portua merkataritza gun e garrantzitsu bihurtu zen aurki, baina Legazpik ez zuen bere lana amaiturik ikusi, edadetua eta Diego Herrera gobernadore izanik, apoplexiak jota hil zen 1572an. Ez zen inoiz jaioterrira itzuli.

La vida de Legazpi es a la vez el cruce de la obra de otros dos vascos: Elcano y Urdaneta. Nacido en Zubarraja, Guipúzcoa, desde temprana edad se acercó al mundo de la mar, navegando a lo largo de las rutas atlánticas recién descubiertas. Arribó a México en 1545, tomando amplio contacto con el virrey Luis de Velasco. En 1563 fue designado por el propio virrey comandante de la expedición que habría de culminar los trabajos de Magallanes y Elcano, al objeto de tomar el archipiélago de las Filipinas. Pero en aquel nombramiento tuvo también mucho que ver otro experimentado marino conocedor del Extremo Oriente: Andrés de Urdaneta, ordenado sacerdote algunos años atrás. De hecho, Urdaneta participaría en la propia expedición como prelado junto a un pequeño grupo de religiosos. Partieron el 21 de octubre de 1564 desde el Virreinato de Nueva España, tomando posesión efectiva a su paso de las islas Marianas. Llegaron a las Filipinas el 13 de febrero de 1565, tras atravesar Leyte e instalarse en la isla de Cebú, estableciendo contacto con tribus pacíficas en un principio. No obstante, en breve tuvieron los primeros encuentros sangrientos, si bien Legazpi se hizo rápidamente con el control de la situación, fundando un pequeño fuerte y un santuario en San Miguel. El 25 de abril del mismo año sometió a las tribus que habían dado muerte a Magallanes, para pasar luego a la conquista del archipiélago de las Visayas entre 1565 y 1569. Inicialmente fueron las islas de Bohol y Panay, así como más adelante las de Mastabe y Mindoro. El dominio de estos territorios lo realizó en su mayoría por medio de acuerdos pacíficos con los jefes locales. Al efecto, fue nombrado gobernador y capitán general de las Filipinas. Sin embargo, tiempo después hubo de enfrentarse con dureza a los súbditos tágalos* del rajá Solimán por el control de la isla de Luzón, fundando el 19 de mayo de 1571 la ciudad de Manila. Desde allí partió con 300 hombres al objeto de pacificar el resto del área. Pronto el puerto de Manila se habría de convertir en un destacado enclave comercial, pero el viejo Legazpi no pudo ver culminada su obra pues, siendo gobernador Diego de Herrera, sufrió un grave ataque de apoplejía en mayo de 1572, que acabó con su vida. Nunca regresaría a la tierra natal.

The life of Legazpi is a combination of the work by two other Basque sailors: Elcano and Urdaneta. Born in Zumarraga, Guipúzcoa, he went to sea as a youth, sailing on the recently discovered Atlantic routes. He reached Mexico in 1545 and met the Viceroy, Luis de Velasco. In 1563, he was appointed by the Viceroy to command an expedition that was to finish the work begun by Magellan and Elcano, with a view to controlling the Philippines. Another expert mariner who knew the Far East well, Andrés de Urdaneta, and who had become a priest a few years earlier, influence the above-mentioned appointment. In fact, Urdaneta took part in the expedition as prelate together with a small group of friars. They set sail on October 21st, 1564, from the Viceroyalty of New Spain and took possession of the Mariana Islands on the way. They reached the Philippines on February 13th, 1565, after crossing Leyte and installing their base at Cebu, where they came into contact with friendly tribes at the beginning. However, they soon had their first battles and Legazpi quickly controlled the situation by founding a small fort and sanctuary at San Miguel. On April 25th of the same year, he conquered the tribes that had killed Magellan and then passed on to conquer the archipelago of the Visayas between 1565 and 1569. First the islands of Bohol and Panay, and later Mastabe and Mindoro. Control over these territories was mainly achieved by means of peaceful treaties with the local chieftains. He was appointed Governor and Captain General of the Philippines. However, some time later, he had to fight the Tagalog* subjects of Rajah Soliman to control the island of Luzon and founded the city of Manila on May 19th, 1571. From there, he set off with 300 men to pacify the rest of the region. Soon, the port of Manila would become a key trading point, but the aging Legazpi would never see the end of his task. While Diego de Herrera was governor, Legazpi suffered a severe stroke in May 1572 and died soon after. He never returned to his native land.

MIGUEL LÓPEZ de LEGAZPI